



3 INGURUMENA

Sasoeta eta Atsotakar azuoetan konpostaje guneak

Lasarte-Oriako Udalak etxeko hiri-hondakinen sorrera gutxitzeko asmoz, bi konpostaje gune jarriko ditu herrian. Oraingoz, proba moduan Sasoeta eta Atsotakar azuoetan. Azaroan izango dira mar-txan bi guneok. Artelatz kooperatibaren bitartez egingo da proiektua eta emaitzen arabera, herriko beste puntu batzuetan konpostaje gune gehiago jartzea aztertuko da.



Ostadar SKT-ko kideak eta Jose Luis Juarez omenduren senideak, Lasarte-Oria Bai! krosaren aurkezpena, Juaresen Gorka semeak eramango du 1. dortsala soinean.

4 EUSKAL JAIK

Okerra harria jasotzeko asmoa dute Euskal Jaietan

Joxe Mari Lasa zenaren "Okerra" harri berezia urriaren 19ko Euskal Jaietan aterako dute herrira. Printzipioz, Telleria anaiak hura altxatzeko saiakera egingo dute. Historia luzea du Okerra harriak, Sasoeta baserrian hasi zen ziklo bat borobilduko du harri zaharrik Okendoko plazan. Harriaren berezitasunen inguruan informazio gehiago lortzeko Joxe Mari Lasaren alabekin eta haren bilobarekin hitz egingo dugu.



Jose Luis Juarez, krosetako omendua

Urriaren 27an ospatuko da Lasarte-Oria Bai! kros herrikoa

Lasarte-Oria Bai! krosa aurkeztu zuen ostiralean Ostadar SKT-k, Okendo plazan. XVIII. edizio honetan, berriki zendu den Jose Luis Juarez PSE-EEko idazkari ohia omenduko dute, eta haren semeak, Gorkak, eramango du soinean 1. dortsala. Lasterketan izen-emateko epea zabalik da dagoeneko.

Urriaren 27an ospatuko da Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoaren XVIII. edizioa. Ostiralean aurkeztu zuten, Okendo plazan, eta antolatzaileek jakinarazi zuten lasterketaren ibilbidea ez dela inolako aldaketarik izango. Aurreko urteetan bezala, Geltoki kaletik abiatuko dira lasterkariak, goizeko 10:30etan, eta 10,5 km-ko bidea osatuko dute Okendo plazako helmugetaraino. "Lasterketa finkatuta dago, eta etorkizunean aldaketarik egingo

behar badugu, hobetzeko izango da", zehaztu zuten antolatzaileek.

Edizio berri honetan, Jose Luis Juarez zena omenduko dute antolatzaileek. Gorka semeak eramango du soinean 1. dortsala. Modu horretan, Juarezek krosaren mesedetan egindako lana eskertu nahi diote: "Atleta elbarrituei laguntzen aritzen zen, bere hutsunea samatuko dugu".

Izen-ematea, zabalik

Lasterketan parte hartu nahi duen ororentzat, zabalik da izen-emateko epea. Horretara,

bi aukera dituzte eskura interesdunek. Batetik, Ostadarren lokalean egin dezakete, Geltoki kalean, astelehenean ostiralerara 17:00etatik 20:00era, eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. Bertan, gaurtik egin ahal izango da inskripzioa.

Izena emateko beste bidea www.kirolprobak.com webgunea da, eta aukera hori marban dago jada, uztailetik. Horrela, 120 parte hartzailetik gora daude izena emanda dagoeneko. Lasterketaren kupa 1.600 atletakoa da.

Prezioei dagokienez, ohiko izen-ematea 12 eurokoa izango da. Ostadarreko bazkideek, berriz, 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta jabetzako txipa dute nek 11 euro. Gainera, alokairuzko txipa behar duten atletek 5 euroko fidantza

ordaindu beharko dute, txipa itzultzean bueltatuko dietena. Lasterketa egunean, inskripzioa 19 eurokoa izango da.

Txipak, dortsalak eta kamiseta teknikoak Michelingo kiroldegiko pilotalekuan jaso beharko dira, lasterketaren egunean, 9:00etatik 10:00etara, edo bezperan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30etara.

Korrika Festa, haurrentzat

Kros herrikoa amaituta, haurren lasterketei egingo zaie bidea, 12:15 inguruan. Korrika Festaren XIII. edizioak 700 parte hartzaile inguru izatea espero dute antolatzaileek. 14 eta 5 urte bitartekoek izango dute lasterka aritzeko aukera. 5 euroko prezioa izango du izen-emateak, eta kamiseta eta domina bana jasoko dute gaztetxoek.

CARNICERIA ARANZABAL **BERRIA**

HARATEGIA

Txekor hamburgesa 7,50 €/kiloa.
Kilo batekin, oilasko bat opari

Jaizkibel plaza 11
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

botika+
gandarias uribe

Lasarte-Oriako ORTOPEDIA bakarra

ortopedia sekzioa

Farmazia Parafarmazia Ortopedia

Iñigo de Loiola 9
20160 Lasarte - Oria
Tel.: 943 019521
farmaortopediagaur@gmail.com

RPS 65/13

Adituak dio



Agurtzane Letona
Ate Joka

Urte beteko deskantsua hartu eta gero, hemen datorkigu kax, kax ate joka Euskal Jaia.

Urriaren 19an, larunbatean izango da oraingo honetan, eta zutabe honetatik baseritarrez jantzi eta bertaratzeko, gozatzera eta bide batez ekimena indartzera gonbidatzen zaituztet.

Hiru urte igaro dira bere ibilbide berrian ekimen honi hasiera eman zitzaionetik. Multimuskalek abiatu zen proposamena eta zenbait kultur eragileren arteko borondate eta gogoek bideratu zuten gure garaiko I. Euskal Jaia biziberritzea.

Antolaketa lanetan izan genuen Lasarten aurretik ere Euskal Jaia ospatzen zeneko berri. Ederral izan zirelako ginen...

Hurrengo urtean patroi beretua jarraituz, Multimuskalarekin elkarlanean Euskal Jaia segida emateko lanari ekin genion, borondate gehiago elkarbanatuz antolaketa zein eguneko eginb-harretarako.

Ate joka ibiltzea beharrezkoa izaten da halakoetan. Aprobetxatu nahi nuke xume xumean, ate beti ireki duguten horiei eskerrak emateko, esku bat botatzeko prest egoten zarenen horiei guztiei.

Kax, kax... aurtengoa ere hemen dago, indarberrituta, aukerak zabaldu nahian, segida izatearen bokazioarekin. Urriak 19an izango da. Etorriko zarete? Zeinen ongi!! Primeran pasako dugu?

Eta geroak errepika dezan berriro: izan zirelako gara...

Euskal Jaia, euskal giroa

Okendo plaza da gure herriko bihotza eta hainbat dira bertan burutzen diren ekitaldiak. Hurrengo larunbatean, Euskal Jaia izango da bertan. Herriko hainbat kultura eragile, elkarte eta taldek egitarau berezi prestatu dute jai giro ederra izan dadin.

Festa giroa espero da beraz, Okendon. Garrantzitsua baita tradizioari eustea. Garaiak aldatu egiten dira, baina aurrera doaz eta jendea, ohiturak eta herria bera aldatzen joan dira urteen poderioz. Dena den, gure erroak gogoraztea ez dago soberan, Agurtzane zutabean aipatzen duen legez, izan zirelako baiera.

1927. urteaz geroztik ez da egiten herrian Euskal Jaia bere horretan, 2010 eta 2011. urteetan ospatu zen Multimuskalaren egitarauaren barnean, baina aurten festa berezia

izatea nahi dute, 1927. urteko Euskal Jai haren eszentzia berreskuratu nahi dutelako.

Horretarako baina, herriartean parte-hartzea beharrezkoa izango da. Hautsez betetako armairu eta apaletatik baseritar txapela, pololoak eta gonak ateri eta plazara jaisteko deia egun dute antolatzailerak.

Trikitixa, kantua, dantza... izango dira egun osoan zehar Okendo plazan. Honetaz gain, kirol ekintzak ere izango dira, Benedikara txangoz, herri kirolak, pilota edo harrizasozea.

Ez da jateko eta edatekorik faltako, noski. Elkarteek antolatutako paella jana eta arratsaldean pintxo potea izango dira herriko tabernen eskutik.

Ez ahaztu, baseritarrez jantzi eta hurbildu plazara!

Hitz eta pitz

Nolako Euskal Jaia nahiko zenuke Lasarte-Orian?



Raul Alegre

Festaz, musikaz eta ekitaldiz betetako Euskal Jai bat nahi nuke. Maratoiaren antzekoa, euskal kulturaren aldeko zenbait. Dantzak, jantziak, kirolak... Ez da dena edatea izango. Baseritarrez jantzi joaten denarentzat txorixo egosi pintxo bat musurik izan dadila proposatzen dut, horrela jendea agian goitik behera baseritarrez jantzi aterako da kalera.



Alo Bengoetxea

Zarautzeko Euskal Jaia dira ezagunenak. Bertan sekulako giroa izaten dute irailen. Badakit Zubietan ere egiten direla baina ez dakit zenbaterainoko arrakasta daukaten. Zarautzen kontrertu asko izaten dira eta inguruko jendea hurbiltzen da bertara goizetik hasita egun pasa polita egiteko. Denetarik dago, berbenak, txarangak... Halako bat Lasarten ondo legoke.



Julen Bengoetxea

Gutxitan izan naiz, baina Euskal Jai famatuak Zarautzekoak dira. Kilometroen estiloko jaiak izaten dira, edota Tolosako inauterietan konpara daitezke. Herriko jendea koadrilaka ateratzen da karrozten kaleetan desfilatzen eta bertan edaria eta janaria eramatean dituzte. Kanpotik jende asko joaten da eta Lasarten agian lehenengo urtean ez baina arrakasta eduki dezake.



Aitor, Julen, Miren, Lander eta Iraitz Arellanotik Arellanoko Euskal Jaia izan gara asteburu honetan eta euskal kulturari garrantzia emateko modu bat dela uste dugu. Bertako dantzak, janzkerak, gastronomia, kirolak etab. sustatzeko aproposak dira. Herri guztiak parte-hartzea nahiko genuke, denon artean giro onean egunaz gozatu ahal izateko, guk Nafarroan egun dugun bezala.

Iruditan

Euskal Jaia biziberritzen



Giro ederra izan zen 2010. urteko Euskal Jaian. Eta noski baseritarrez jantzi joan ziren herriar asko.

Lasarte-Orian eta Zubietan 1927an antolatu ziren lehenik Euskal Jaia. Baina herriko ere bizi izan ditugu gure herrian Multimuskalaren baitan. 2010. urtean Kirol guneke tenis pistean ospatu zen eta 2011. urtean, berriaz, Okendo jarri zen karpn. Aurtengo edizioan bezala, hainbat elkarte bere harritxoak jarri zuten jai alai eta dibertigarri antolatzeko. Denetarik izan zen bertsolariak, abesbatzak, herri kirolak, herri bazkaria, erromeria... Eta herriar asko bildu ziren euskal giroaz gozatzeko. Aurten ere horrela izango denaren esperantza dute antolatzailerak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORRI
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GPKo Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Tiatun Kultur Elkarte
Geltoki Kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigue, Maider

Azumendi, Jon Aluna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Argintza Artola

publizitatea@tatakun.com

administrazioa@tatakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Zabala, Maitu Arriola, Aier

Oñozola, Jose M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Alzaitarte,

Edo Galardi

Informatikoa:

Xabier Amisoz

INGURUMENA

Konpostajearen alde

Atsokabar eta Sasota auzoan bi gune eraikiko dira

Lasarte-Oriako Udalak etxeko hiri-hondakinen sorrera gutxitzeko asmoz, konpostaje guneak jarriko ditu herrian. Oraingo, proba moduan bi gune berezi prestatuko ditu Sasota eta Atsokabar auzoetan. Hauek azaroan izango dira martxan.



Nerea Sanchez eta Arantxa Oriá Sasotako konpostaje gunea egongo den lekuan.

TXINTXARRI

Nerea Sanchez Ingurumen saileko arduradunak eta Arantxa Oriá Artelat kooperatibako kideak Lasarte-Oriako udalaren bi konpostaje gune berriak aurkeztu zituzten ostegunean. Gune hauek Sasota eta Atsokabar auzoan egongo dira eta azaroan izango dira erabilgarri.

Lasarte-Oriako Udalak hondakinaren arazoari interbide bat bilatu nahian eraikiko ditu bi gune hauek. "Jakina da zaborren inguruan sortua dagoen burrunba, sortzen ditugun hondakin guztien arazo bat dugu eta arazo hau konpostezko aukera bakarra egunetik egunera gehiago birziklatzen lagunduko ditugun sistemetan pentsatzea da", adierazi zuen Sanchezek.

Ingurumen batzorde buruak jakinarazi zenez, auzo bakoitzean konposta egin nahi duten 20 familia izango dira gune hauek erabiliko dituztenak.

Konpostaje guneak

Gunetan egurrezko etxola bat egongo da eta bertan lau konpostagailutan bilduko dira hondakin organikoak.

Erabilera erraza izango dute, "familiek etxean sortutako hondakin organikoak konpostagailuan bota eta prozesu naturalaren bidez, konposta bihurtuko da".

Hau da, materia organikoak zabortearen ziklotik ateratzeko Lasarte-Oriako emango den lehenengo pausoa.

Bilerak eta prestakuntza

Ingurumen batzordeko buruak azaldu zenez, Atsokabar eta Sasota auzoko etxebizitzetara informazioa bidaliko da eta interesa duten familiek bilera informatiboak izango dituzte Villa Mirentxun. Sasotako auzo lagunek urriaren 16an, 19:00etan eta Atsokabar

auzokoek, berriz, urriaren 17an, 19:00etan.

Era berean, konpostagailuen erabilera ulertu eta ikasteko ordubeteko prestakuntza-saio bat izango dute urriaren 21 edo 23an.

Izena ematea

Honetan izena emateko bat aukera dituzte familiek. Batetik etxe atarietan jarriko diren zerrendetan izena eman edo telefonoz 943 670 249 zehazkera deituta. Inskripzioa urriaren 18a baino lehen egingo da.

Udalak proiektu honen jarraipena egingo du Artelat kooperatibaren bitartez eta Nerea Sanchezek aurreratu duenez, esperientzia honen emaitzen arabera, herriko beste puntu batzuetan konpostaje gune gehiago jartzeko aztertuko da.



Aiza Morales-Kastresanak Zabaleta auzoko lagunen galderak entzun zituen.

ZABALETA AUZOAN Udazken festari agur

Asteburu honetan, Zabaleta auzoko lagunek Udazken festako azken ekitaldiak izan dituzte. Duela bi astea, hasi zen festa sardin-jan gozoarekin eta azken bi ostiraletan hitzaldi interesgarriak izan dira auzoko lokalean.

Urriaren 4ean, hemengo eta kanpotik datozen txori eta hegaztiak izan ziren Antonio Eleizgiren hitzaldiko gaiak. Ostiral honetan, berriz, Aiza Morales-Kastresanak minbizia, sistema immunea, elikaduraren garrantzia eta batez ere, immunoterapiari buruz mintzatu zen.

Larunbatean Zabaleta auzoko lagunek Lizarrustirako parkera joan ziren. Honetan ikazkinen mundua ezagutu eta txondorra ikusi ahal izan zuten.

ATERPEA**I. Pintxo txapelketa**

Lasarte-Oriako Aterpea Merkataritza elkarteak jakinarazten du azaroaren 30ean herriko I. Pintxo txapelketa antolatuko dela. Ostalariei zuzendutako lehiaketa da eta honen berri emateko bihar, goizeko 10:00etan bilera bat izango da Villa Mirentxuko itzaitzerakoan.

Aterpea Merkataritza elkarteak herriko ostalari guztiak gonbidatzen ditu txapelketa honetan parte hartzera.

KULTURA**Irakurle-txokoaren lehen saioa asteartean**

Lasarte-Oriako Irakurle-txokoaren lehen saioa bihar astearte, arratsaldeko 18:30ean izango da Villa Mirentxun.

Honetan Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" liburua izango da aztergai. Gainera, idazlea bera saioan izango da bere idazlanaren nondira norakoak azaltzeko.

XIRIMIRI**Herriko tabernen epaiketa**

Hurrengo ostegunean, 19:00etan Xirimiri elkarteak kideek prentsaurrekoa eskainiko dute Okendo plazan. Egun honetan 35/02 sumario edo herriko tabernen aurkako epaiketa hasiko da eta Xirimiri elkarteak da auzupratuetako bat.

Elkarteko lagunek epaiketa politiko hau salatu nahi dute prentsaurrekoaren bidez eta herritarrei gonbida egiten diete elkarteari babesa eman eta prentsaurrekora agertzeko.

IPIIN KONTALARIAK**Ipuinetan barrena**

Caur arratsaldeko 18:00etan Pello Añorgak ikasturte honetako ipuin kontalari sailari hasiera emango dio haur liburutegian. Lehengo saio hau 4 eta 5 urteetako haurrei zuzendua izango da.

Ipuin kontalariak Lasarte-Oriako Udal liburutegiak aurrera eramaten duen ekintzetako bat da. Bere helburua haur eta gaztekoen artean literatura sustatzea da.

Horregatik, hiru hilabete honetako egitura antolatuta du eta honetan bi adin tarte banatuko dira Pello Añorga 4 eta 5 urte arteko haurrei kontatuko dizkie ipuinak eta Kontu Kontoioko lagunek, berriz, 6 eta 8 urteko gaztetxoekin milaka abentura biziko dituzte.

Pello Añorgak azaroaren eta abenduaren 12an izango ditu hurrengo saioak; Kantu Kontoioko lagunek, berriz, urriaren 29, azaroaren 26 eta abenduaren 16an.

Liburutegiko arduradunek ohartarazi dutenez, saioak 18:00etan puntual hasiko dira. Gainera, haurrak bakarrak izango dira haur liburutegian eta saioa dagoen bitartean ezinongo dira gelatik atera.

"Buelta" haur antzerkia larunbatean

Haurrentzako antzerki emanaldiak berriro hasiko dira Manuel Lekuona kultur-etxean larunbat honetatik aurrera. Lehena Behibi's taldearen "Buelta" saioa izango da, euskaraz.

Istorioko protagonisten porrot ugari jaso dituzte eta askotan aurkitu dira ihes egin beharrean. Beren lurretan petrolioa aurkitzen dutenean kanporatu egiten dituzte, hiri handi batera doaz eta kontsumismoak eta zorrorek sosik gabe uzten dituzte... Baina, azkeneko, garaietan txiki bat lortuko dute, eta bizitza berri baten hasiera izango da.

Behibi's kanpainia

Behibi's 1992an sortutako antzerki kanpainia da. Kontsumoaren inguruko kanpainak



Painpinak, musika eta abenturak batzen ditu "Buelta" haur antzerkiak.

egin ohi dituzte, zenbait Udalekin harremanetan, eta hainbat jaialdi eta antzerki feriatan parte hartu dute: Toloasa, Feten... Urte luzez soilik haurrentzako emanaldiak egin ostean, helduei zuzendutako antzerkiak eginen hasi ziren, "No es fácil" saioarekin.

Larunbat honetan haurrentzako antzerkiarekin izango dira berriro. Saioa arratsaldeko 18:00etan izango da, eta 50 minutuko iraupena izango du. Sarearen prezioa 3,70 eurokoa izango da lehiatilan, eta 3,24 eurokoa www.lasarteoriasaren.com urebunean aurrez erostuta.

“Okerra”, harri berezi baten itzulera

Joxe Mari Lasa zenaren harri kutuna Lasarte-Orian da berriro, Euskal Jaia ospatzeko

Harriek, pertsonek bezala, bere historia dute, ibilbide bat osatzen dute. Eta toki batetik bestera saltoka, batzuetan, euren jatorrizko herrira itzultzen dira berriro. Hala gertatu da Joxe Mari Lasa zenaren “Okerra” harri kutunarekin ere. Urriaren 19ko Euskal Jaian, Telleria anaiek hura altxatzeko egingo duten saiakerarekin, Lasarteko Sasoeta baserrian hasi zen ziklo bat borobilduko du harriak. Ibilbide hori osatzeko asmoz, Lasaren alabekin eta bilobarekin hitz egin dugu.

Beñat LOS ARCOS

Lasatarren Sasoeta baserrian hasten da istorioa, hura baita harriaren inguruko lehen oroitzapenen kokaleku. Haatik, 110 urte baino gehiago omen ditu “Okerra” harriak. Baina Joxe Mari berak ere ez zuen haren jatorriak ezagutzen. Baserrian izan zuen harriaren berri lehenegoz, orain mende erdi baino gehiago. Eta gorde egin zuen, noski, ondo gorde ere.

Sagardotegia ere bazuen familiak, baserriaren ondoan. Eta bertara bildutakoak izan ziren, maiz, harri berezi hura altxatzen saiatu zirenak, eronkak erakarrita. Alferrik, ordea. Inor gutxi izan omen da hura jasotzeko gai. Bost baino ez, 1981eko Euskal Jaiaaren programaren arabera. Orduan egin ziren “Okerra” harria jasotzeko azken saiakerak, Okendo plazan. Haren zailtasuna giharretan sentitu zuen azken harrijasotzaile haiek Billabonako Gabilondo, Orioko Saizar, Astigarragako Aluna eta Lasarteko Arteaga izan ziren.

Jose Manuel Ibar Azpiazu “Urtain” boxeolari eta harrijasotzaile ezaguna izan zen altxatzea lortu zutenetako bat. “Espresuki etorri zen Lasartera, harri berezi hura altxatzea”, kontatu digu Josebak, Joxe Mariaren bilobak. Eta lortu zuen, Urtainen trebea baitzen harriak jasotzen.

“Teknika ona eduki behar da harria altxatzeko, ez baita erregularra”. Udare forma du 139 kiloko harriak, eta heltzeko zailtasunean datza bere konplexutasuna. “Dirudiene baino zailagoa da pisutsua goa da; hasiera da bereziki nekeza”.

Baserritik tabernara

60ko hamarkadaren hasieran utzi zituzten baseria eta sagardotegia Lasartek , eta kalera jaitsi ziren, Lasartera. Harria ere lagun izan zuen aldaketa horretan, eta berehala aurkitu zioten txokoa. Taberna bat jarri zuen familiak, “Joxe Mari edartegia”, Geltoki kalean, eta biltegian egin zioten lekua. Tentuz gordetzen zuen Joxe Mari, eta bezzeroren batek altxatzeko alferrikako saiakera egin nahi zunean baino ez zuen ateratzen.

Harriak ez zuen beste bizilekurik ezagutu, harik eta 80ko hamarkadaren lehenengo urteetan taberna alokatu zuten arte. Orduan, Zabale-tako hilerriaren inguruko lurretan zuten txabolara mugitu zen Joxe Mari. “Orduak eta orduak ematen zituen baratzean lanean”, dio Mirenek, Joxe Mariaren alabak. Eta gertu izaten zuen beti “Okerra”, ikusteko moduan.

Maiz izaten zuen lagun Joseba biloba ere. “Gogoan dut aitonarekin baratzera igo izana, eta harriaz zekiena kontatzen zidala”. Aitonak erakutsi zion harriaz eta harrijasotzeaz dakien guztia.



Joseba, Joxe Mari Lasaren biloba, “Okerra” harriarekin; asteazkenean ekarri zuen Eskalantetik, Kantabriatik.

“Okerra”, umezurtz

Ez zituen, ordea, bertan urte asko eman Joxe Mari. “Gazte hil zen aita, 1986an”. Haren emaztea geratu zen lur haiek eta harriarekin. Eta bertan eman zituen urte asko eta asko, orain bost urte zendu zen arte. Umezurtz geratu zen harria orduan. Txabola eta baratza saldu zituzten ondorengoek, baina harria geratu beharra zekuten. Izan ere, balio handikoa dela azipimarratzen du Josebak: “Tradizioa mantentzeko eskatu zigun aitonak, eta esangura handia du harriak gurezat”.

“Nire ahizpak hartu zuen harria gordetzeko ardua, etxe handiago zeukalako berak”, azaldu digu Mirenek. Kantabriako Eskalante herrian zuen baserrira eraman zuen hark, eta bertan izan da ordutik. Baserrian Joseba bizi da orain, eta bera arduratu da aitonaen harri kutuna zaintzeaz: “Aitonaren oroitzapen bat da niretzat”. Aire librean dago harria, euri-urak sarritan bustitzen duela eta haizeak jo. “Baina “Okerra” lehen bezalatsu

dago”, ziurtatzen du Josebak. Beste mende oso bat irauteko moduan.

Bost udaberri eta bost udazken eman ditu Josebaren baserriko belardian, lekuri onenean jarrita. Eta bertan izango da urtea joan eta urtea etorri. Ez baitu sekula harriarengandik urrundu nahi. “Nirekin eramango dut beti, noan lekura noala”. Joxe Mari “Okerra” harriari zion maitasuna, bilobak jaso du oinordetzan.

Egun batzuek, baina, bere bizilekua utziko du harriak, jaioterrira itzultzeko. Lasarte-Oriara ekarri zuen Josebak berak asteazkenean, eta bertan izango da Euskal Jaia ospakizunerako, urriaren 19an. Berezia izango da Miren. Baserriat “Okerra” berriro herrian ikustea, bera baita bost anai-areben artean Lasarte-Orian geratu den bakarra. “Sentimenduetan eragiten duen gauzak dira hauek”, onartzen du Mirenek.

Altxatzea, aukeratuen esku

Oraingoan, Telleria anaiek egingo dute harri berezia

altxatzeko saiakera. Jasoko duten, ordea, ezin jakin. Baina lortzekotan handia egingo lukete, hori ziur. Aukeratu zenrendan sartuko lirateke, izen historikoekin batera. Urtain bera, Orioko Ignacio Oliden, Hernaniko Egia anaiek eta Aginagako Errasti biltzen dituen zerrendan, hain zuzen ere. Eta urte asko dira inork ez duela balentria lortu. “Nik behintzat ez dut inor harria altxatzen ikusi”. Saiakerak, ordea, mordo ikusi zituen Josebak. “Behin aitona lagundu nion harria baratzetik kalera jaisten, Brigadatarren Komentu ondora, baten batek saiakera egin zezan”.

Festa borobilduko luke altxaldi bakar batek, baina ospatzeko arrazoiak mahai gainean daude jada. Harri baten ibilbide borobila, sorterriarok itzulera osatuz, egun batzuetarako baino ez bada ere. Bertakoa baita “Okerra” harria, lasartera, Sasoeta baserrikoa. Eta gure artean da berriro, Euskal Jaian ospakizunari bere harri-koskorra eskaintzeko.



Joxe Mari Lasa zena, “Okerra” harriaren jabea, idiak gidatzen.



Lasarteko Sasoeta baserria; bertan izan zuen Joxe Mari “Okerra” harriaren berri lehenengoz.



Zambrako dantzariak gorri koloreko soineko dotoreak lau haizetara dantzan jarri zituzten.



Ilgandeko babarrun-janak 70 lagun elkartu zituen elkarteko egoitzan.

Andaluziar erara

Festa elkartetik atera eta plazara eraman dute

Semblante Andaluz elkarteak aste kulturala egin du asteburuan Atsokabar auzoan. Golf plaza kolore eta musika eskenatoki bihurtu da, adin guztietako jendeak ekintza ugari izan ditu gozagarri eta eguraldiak errespetatu duenez, egun politak igaro dituzte. Izan ere, antolatzaileen helburu nagusia andaluziar kultura herriari zabaldu eta hura ezagutzeko aukera ematea izan da, kolore guztietako jendea festara hurbil zedin.

doinuak dantzatuz.

Eguerdiaren tren maketaren erakusketa egin zen Golf Plazako berdegune batean eta lehiaketarako tartirik ere izan zen. Gizon eta emakume selekzioaren arteko bote txapelketa antolatu zuen.

Bazkaldu aurretik, haur jolasak izan zituzten plazan eta jokoak amaituta, dantzan egin zuten denek oholtzara igota. Asteburuko martxa medio, gosea egina zeukaten orduerako eta 70 laguneko babarrun-janak gozatu zuten elkartean egoitza.

Bazkalondoa kontu-kontari aritu ziren Perez Acosta, Txema Vallés eta udal ordezkaririk Pablo Barrio alkatea tartean zela. Ostean Semblante Rociero taldeak emanaldia eskaini zuen.

Asteburuan egindako lehiaketa ezberdinetako sari-banaketarekin amaitutzat eman zuten emozioz betea izan den aurtengo Kultur Astea. Hurrengo urtean zuzendaritza eta presidente berria izango ditu Semblante.



Umeen egunean, gaztekoek ederki pasa zuten jolasak egiten eta eskenatokiak dantzan.

Jon ALTUNA EGITEGI

Ostiralean hasi zuten asteburuko menua Semblante Andaluzeko kideek Txema Vallés egindako omaldiaren antolatuntzan zerikusi handia izan baitzuten elkartek berak eta baita Jose Perez Acosta presidentek.

Kultur-etxeko festa txikiaren ostean herri afaria egin zuten Atsokabarreko egoitzan. Larunbat eguerdirako berriro ere martxan ziren semblantekoak Amigos del Sur taldearen doinu andaluziarrekin auzoa esnatu eta giratu asmoz.

Larunbat arratsaldean Merche Montes kantari eza-

gunak kontzertua eskaini zuen eta Zambra taldekoen soineko gorriek eta kriskitinek giroa berotu zuten takoiari gerri kolpeekin argazki ederrak uzteko.

Atseden txiki baten ostean Son Kandelak latinoamerikako doinu bizi eta dantza-garriak ekarri zituen Atsokabarrera eta batez ere txikienek gustuz entzun zituzten kantuak.

Txikitxoak protagonista

Ilgande goizean elkarteko txikienei txanda izan zen. Gitanillos del Alba eta Duende Flamenco taldeek urtean zehar ikasitakoa senide eta lagunuen aurrean erakusteko aukera izan zuten goizean goiz sevillana



Txema Vallés egindako omaldiaren antolatzaile nagusietako bat izan zen Semblante.

REFORMAS
 Javier Lasa
 Tfnoa 688618596
 xabilasa@euskaltel.net

Konpremezurik gabeko aurrekontuak
 Konponketak
 Bainontzi aldatzea
 Sukaldeak
 Komunak

Presupuestos en construcciones
 Pequenas Reparaciones
 Sustitución de Baños
 Casas
 Baños

ANOBGA TRIBI S.L
KRISTALDEGIA

-komertzial instalazioak - beira bikoitza
 -segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
 -ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORTIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

FUTBOLA

Porrot mingarria Ostaderreko nesKentzat

Asteburuan Michelinen jokatutako partida 0-3 galdu zuten Antigua Luberriren aurka

Ostadar SKT-ko futbol taldeak martxan dira. Emakumeen taldeak lehen astean atseden izan zuten arren, honetan Antigua Luberrri taldearen aurka jokatu zuten. Asteburuko porrota ahaztuta, hurrengo jardunaldian Usurbilen jokatu beharko duten berri garrantzitsuan daukate jarrita burua dagoeneko.

TXINTXARRI

Ostadar SKT-ko emakumeen futbol taldeak denboraldia irailaren 28an hasi zuten etxean. Lehen partida horretan Hondarribi taldearen aurka jokatu zen eta garaipena, 1-0, lortu zuten taldeak.

Aste honetan ere etxekoan babesa izan du Antigua Luberriren aurka jokatzean. Emaitzak ordea ez du lagundu, 0-3 egurtu baitzituzten. Batez ere bigarren zatian egindako lan kaskarren ondorioz galdu zuten. Badute zertan hobetu.

Berrikuntzak taldean

Ostadarreko emakumeen taldeak hainbat berrikuntza izan ditu. Batek entrenatzaile eta laguntzaile aldatuta izan da. Gorka Perezek hartu du entrenatzaile postua eta laguntzaile lanetan Ruben Caldas dago.

Denboraldi honetako helburua taldea indibidualki eta kolektiboki hobetzea dela azpimarratu duc. "entrenamendutan eta partidatan

ondo pasatzea, disfrutatzea eta ahalik eta emaitza hobeen ateratzea".

Honetaz gain, Perez entrenatzaileak azaldu digunez, hiru jokalarri berri daude aurreko taldean Naiara Uria, Cristina Revillo eta Ainara Roman.

Bestalde, baja batzuk ere izan dituzte, Izaskun San Nico, Nerea Marcos, Janire Tovar eta Janire Arroyok taldea utzi edo lehiatu gabe entrenatzen jarraitzen dutela aipatu digu.

Jokatzeko modua

Era berean, jokatzeko estiloa aldatu dutela ere azaldu digu, "lehen 1-4-3-3 sistemarekin jolastzen zuten, orain, ordea, 1-4-2-3-1 sistemarekin. Sistema hau defentsibagoa da eta jolasteko daukagun erarekin lehenengo urtean baino zuzenagoa".

Era honetara, partidatan baloieran jabetza edukitzea da helburua aipatu digunez, "horren bidez arriskua sortuko da".

Perezek onartu duenez,



Lehen zatian Ostadar hobeto aritu bazen ere, Antigua Luberrri exekoean atera behin iritsita, gola egin zuten.

taldea oraindik estilo honetara moldatu behar da, "lan asko daukagu egiteko baino piskanaka ikusten da hobetzen ari garela".

Gainera, taldea ondo ikusten du, "ikasteko gogoeikin, denboraldi ona egiteko gogoeikin, eta horrela errezeta da taldearekin lana egitea".

Denboraldia

2013-2014 denboraldiari dagokionez, "oso luzea da. Hasiera da oraindik eta garrantzitsuenak beti datorren partida da".

Aurten aurrez aurre izango dituzten taldeetaz ere mintzatu da Gorka Perez, "Denak dira aurkari gogorrak, talde batzuk tekniko oso onak

dirielako, beste batzuk lehenengo minututik azkenekora asko borrokatzen dutelako eta beste batzuk bere armak ondo erabiltzen dakitelako, azkeneko partida guztiak dira gogorrak eta xehetasun baltzuegatik irabazi edo galdu egin dezakezu".

Prestaketa

Denboraldia prestatzeko denbora izan dute eta ederki lan egin dutela aipatu du, "Jokalarriak gogo askorekin eta motibatuak egon dira entrenatzen eta hobekuntza asko ikusi da lagunarteko partidatutan bereziki".

Izan ere, Ostadarreko emakumeen taldeak hainbat partida izan baititu aurrenden-

boraldian.

Lehenengo partidatan, Amara Berri taldearen aurka 2-0 galdu zuten, "zelaietan pixkat galduak ginen, fisikoki berriak hobeto zeuden eta partidua horretatik asko ikasi genuen", onartu du Perezek.

Baina beste guztiak irabazi dituztela azpimarratzekoa da. Añorgako hiruko txapelketa irabazi zuten. Honetan Luberrri 0-2 Ostadar eta Añorga 0-1 Ostadar eta Touring taldearen aurkako lagunartekoan 1-0 irabazi zuten.

Hurrengo jardunaldian Usurbilen aurka jokatu beharko dute Haraneko zelaietan. Beheko postuetan dabilta usurbildarrek eta irabazteko moduko partida da.

IBILBIDEEN EGUNA.



ibilbideen VI. egunean jende asko ibili da.-Eguraldi ona lagun, goiz-goizetik jende asko ibili zitekeen Elizatze plazan jarritako postuan. Lasarteoriatarrek Andoain, Usurbil eta Umietako bikotak izan dituzte aukeran, zailtasun eta distantzia ezberdinekoak denak, baina edonork aise goteko modukoak. Horrexegatik ikus zitekeen adin guztietaiko jendea hara eta hona mendiko botak jantzia eta mendiko makila modernoak edota urritz makila klasikoak eskutan. San Pedro parokiako atepaan, Super Amara babeslearen eskutik, fruta eta ura izan zituzten indarrak berreskuratze eta bi ibilbide baino gehiago osatzen zituztenek bisera bat jasotzen zuten opari.

LABURRAK.

Ostadar SKT-k bolariak behar ditu

Ostadar SKT-ko bola-joko lagunek bolariak behar dituzte. 2013-2014 denboraldi amaieran Euskal Herriko txapelketa izango da Lasarte-Orian eta gure herrian taldea osatu nahi dute honetan parte hartzeko.

Bola-joko taldeak herritarrek animatu nahi ditu bola-jokoan parte hartzera. Interesa duenak kirol guneko bolatokia hurbildu daiteke larunbatetan goizeko 11:00etatik 12:00etara.

Triatloi entrenatzaile ikastaroa

Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuta eta Bizkaiko Triatloi Federazioaren laguntzarekin, lehen mailako triatloi entrenatzaile ikastaroa antolatu du azaroaren 9tik aurrera.

Parte hartzeko beharrezkoa izango da 16 urte beteak izatea eta Bigarren Hezkuntzan Graduatu titulua edo ondorio akademiko baliokidea duen beste titulazio bat zuziatzea.

Izena ematea Euskadiko Triatloi Federazioko egoitzan, Iruen egin behar da. Informazio gehiago eskuratu nahiez gero, interesatuek 943 472 557 telefonora deitu edo triatloi.org orrialdean sartu behar dira.



— Agenda —

Astelehena 14, gaur, 18:00etan, haur liburutegian



Mila istoriotan murgilduz

Pello Anorgak aurtengo ipuin kontalari txokoari hasiera emango dio. gaurko saioa 4 eta 5 urte arteko haurrei zuzendua izango da. Anorgak milaka abentura eta istoriotan murgilduko ditu herriko haurrak. Saio puntu puntuan hasiko da eta haurrek bakarrik egon behar dute.

da. "Shadow Rule Electro"-rekin elektro musika. Sarrera gehi garagardoa, 7 euro; sarrera gehi kopa, 10 euro.
Larunbata 19, 21:00etan
 "C. Tangana" taldearen kontzertua. Ondoren, Primo jaia: "DJ Kigo", "Las chicas del pastel" eta "Primo"-ren doinuez gozatzeko aukera.

Euskal Jaia

OKENDO PLAZA
Larunbata 19
09:00etan, Benedikara txangoa. 11:30ean, Kantujira: kantua, dantza eta bertsolariak.
14:00etan, Bazkaria. Txartelak, Jalgi kafe-antzoki eta Ttakunen, 6 euro.
Ondoren, "Hiru, bi, zati, egizu jolas" haurrentzako antzerkia, dantza eta kantua.
17:00etan, familientzako herri-kirolak; haurrentzako pilota partidak; "Okerria" harria jasotzea.
18:30ean, "Trikihots" taldearen erroberia.
19:30ean, herriko 15 tabernatan pinto-potea. Kalejira trikitalierekin.

Lasarte-Oria
 Irakurle-txokoa

VILLA MIRENTXU
Asteartea 15, 18:30ean
 Lasarte-Oriako Irakurle-txokoaren lehen saioa izango da. Honetan Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" eleberria aztertuko da. Idazlea saioan bertan izango da.



Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 20, 17:00etan
 Haurren zinea atalaren barruan, "Los Pitufos 2" filma ikusi ahaliko dute gazte-txoeak. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz
Osteguna 24, 19:30ean
 Ostegun zinea atalaren barruan, "Searching for Sugarman" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; inter-



net bidez, 4,24 euro. Jatorrizko bertsoa, gaztelaniazko azpitituluekin.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 19, 18:00etan
 Haur antzerkia sailean, Behibisi taldeak "Buelbaka" lana eskainiko du. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro.



Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 18, 22:30ean
 "Zulo Electric Shadow" gaua izango

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA HERRIKO TABERNAK
Urria amaiera arte
 "1936 Lapurtutako haurtzarora" argazki erakusketa ikusgai izango da Udalak eta Islada Ezkutatuak taldeak antolatuta.

— Herritarren txokoa —

Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkartek bazkideei eta lagunei jakinarazten die Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela dagoeneko.
 Hauke eskuratzeko, elkarteko egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira interesatuak.

Biyak Bat elkartearen iterea

Biyak Bat Elkarteak urriaren 28rako Orreaga eta Donibane Lohitzunera bidiaia antolatuta du.
 Elkarteko bazkideek 35 euro ordainduko dituzte eta bazkide ez direnak, berriz, 40 euro.
 Izena emateko egoitzako bulegora hurbildu behar da. Inskripzioa astelehenean, urriaren 14an hasiko da.

Usurbilgo Lanbide eskolako titulak

Usurbilgo Lanbide eskolak jakin arazten du, 2012 urtean erdimaila eta goi mailako ikastaroak amaitu zituzten ikasleek haien titulak jasotzera hurbildu daitezkeela eskolara. Tituluak Lanbide eskolako bulegoan jasoko dira, goizetan 9:00etatik 14:00etara.

Alboka Abesbatza eta Alboka Txiki-ren entseguak

Alboka abesbatzak jakin arazten du Alboka Txiki abesbatza lanean ari dela. Entseguak asteartean arratsaldeko 18:00etan dira Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan.
 Herriko abesbatzak 5 eta 16 urte arteko haur eta gazte txokoak animatu nahi ditu entsegetara hurbildu eta probatzera.
 Bestalde, helduen abesbatzak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara ditu entseguak.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira. Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean egingo ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxe-ko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.
 Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gazte txoeak ere Erketz Txiki dantza egiteko aukera izango dutela gogoratu dute.
 Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

— Sarean —

Skype euskaraz ere erabil daitezke

Bideokonferentziak egin behar baditugu, tresna eraginkorrenetakoa dugu Skype. Bada, irailetik aurrera euskaraz ere erabil dezakegu aplikazioa. Koniker enpresak burutu du Skype gure hizkuntzara itzultze-lana.



Edozein ordenagailu edo smartphonetik bideo eta hotszede diak egitea ahalbidetzen duen doako programa da Skype. Alegia, edonon gaudela ere, lagun batekin edo senide batekin hizketan egon gaitzeko solaskidea oneoro ikusiz eta entzuz.
 Orain, Skypek hamagarren urteurrena bete duenean, euskaraz ere erabilitzeko aukera erraztu digu Konikerrek. Aplikazioaren bertsiio gehienetan dugu eskuragarri itzulpena, 6,1 bertsiotik hasita eta 6,7 berrienera arte. Edozein dela bertsiioa, programa itzultzeko beharrezko fitxategiak sourceforge.net gunean daude, "Skype: Euskarazko itzulpena" izenburuean.
 Behin "lang" luzapena duen fitxategia deskargatu eta gure ordenagailuan gure dugu, nahikoa izango da aplikazioan hura kargatzea. Horretarako, Skype ireki eta tresnak atalera jo beharko dugu. Bertan, "hizkuntza aldatu" aukeratu, "Skypen hizkuntza fitxategia kargatu" sakatu, eta deskargatu dugun fitxategia aukeratu. Hortxe dugu Skype euskaraz!

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutituz argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
 txintxarri@txintxarri.info



Kristina emaztea uneroo alboan izan zuen Vallesek eta aita Mariano semeaz harro agertu zen omenaldia hasi aurretik.



Diario Vascoren azal pertsonalizatua oparitu zion Jesus Mari Eguizabalek.



Kiroolari eta kirolzale. Txirrindularitza eta futbola dira bere bizitzako pasioetako bi.



Imanol Lizardi eta Joxe Krutz Labakak bertsoetan egin zioten "Aita semeak" doinuaren.



Txemaren hitzak txintxarri.info-n daude entzungai eta argazki galeria ere osatu dugu.

30 urtez herria idazten

Lasarte-Oriak Txema Vallés omendu du asteburuan

Pertsona maitatua da herritarren artean Txema Vallés 55 urteko lasarteoriatarra. Diario Vascorentzat lanean 30 urte aritu da kamera eta bolaluma hartuta herrian gertatzen den guztiaz berri ematen, askotan, lagunak eta familia bazterrean utzita. Lanarekiko eta herriarekiko konpromisoa eskertzeko omenaldia egin zioten herriko talde, elkarte, instituzio eta norbanako askok. Merezitako aitortza inondik ere.

Jon ALTUNA EGITEGI

Omenaldi egunean, ostiral arratsalde batez kultur-etxea ia geroz bete izanak erakusten du Txemari estimu handia diola herriak. Festa txiki bilakatu zen omenaldia. Iluntzean kalean danborrada zain zuen Vallesek. Mariano aita, Kristina Fernandez emaztea, Enara eta Joana bi alabak eta senideak alboan zituela Lasarte-Oriako danborradaren doinuak entzun eta agurra dantzatu zioten kultur-etxeko atarian.

Ostean kultur-etxeko eskaileretan lore-sorta bat eman zioten Cristina emazteari eta Ostadarreko txirrindularitza sailak gurpilekin pasiloa egin zion Txema Vallési.

Kultur-etxeko festa

Behin barruan, Goikouria txalaparta eta Amalur trikititza eta pandero eskolako neska-mutilak zain zituen ongi-etorria egiteko.

Nerea Segurak egin zituen aurkezle lanak eta teloi irekitzearekin batera Jalgune elkar-teko lagunek antzerki txiki bat egin zuten. Oscar Txemaren bibotearekin moztorrotuta oholtzaratu zen eta herriko kazetariaren boda eguna irudikatu zuten besteak beste, argazki-kamera eta guzti.

Zarautzetik ere bisita egin zioten Txemari. Mambo Txiki akademiak bi dantza eskaini zituzion Porompempero eta Dilema kantuen doinuez lagunduta. Kukukak ere Swing berezi bat dantzatu zuen esko-

lako kamiseta berdeak jantzia.

Momenturik bereziene-takoa izan zen Imanol Lizardi haurtzaroko laguna eta Jose Krutz Labaka Earral bertso-eskolako kideak oholtzaratu eta bertso sorta bat botu ziotenean. Euskara ez ikastearen arantzaxoa oraindik ere atera dezakeela gogorarazi zioten eta hark ulertzeko azken puntua erderaz egin zion Lizardi: "...Sabes que no lo dudo, Txema, eres un amigo cojonudo" botu zion lau urte zituzte-netik lagun duen Imanolek.

Jubilatu den elkarteko abes-batza, Coro Semblante Andalu-z eta Su Berri akordeoi orkestra omenaldiari musika jartzeaz arduratu ziren eta Pirrotzek eman zion umore ukitu egun handiari.

Herriarren errekonozimendua

Oroigarri andana jaso zuenVal-lesek. Udalarena Pablo Barrio alkatearen eskutik, DVrena Estrella Inchausti eta Ager Lautegiti egunkariko ardurua- ren eskutik, Migel Angel Oribe eskultorearen obra bat honen alaba eta emaztearen eskutik, Amalauren pandero bat Jon Lasaren eskutik eta Txema Vallés protagonista duen Diario Vascoren azalako orri bat markoan jarrita Jesus Mari Eguizabalen eskutik, Txemaren aurretik DVko herriko korrespondentsal izan zenaren eskutik alegia.

Hauetz gain, hainbat eta hainbat kirol talde, kultur elkarte eta norbanako bertara- tu ziren guztien artean "Zorion- nak zuri" abestu zioten.

Ostean hamar minutu inguru- roko hitzaldia eskaini zuten. Jende askori eman zitkien eskerrak, herriko elkarte, talde, instituzio eta norbanako asko aipatu zituzten. Tartean, Jose Perez Acosta, Imanol Lizardi, Jesus Mari Eguizabal, Felix Telleria, Danborradako laguna, profesio lagunak, lankide- ak, Udalean berarekin lanean aritu direnak... Jende askorekin akordatu zen.

Etzeko neskek gogoan

Baina guztien artean Kristina Maria ama, Kristina emaztea eta Enara eta Joana alabak izan zituen bereziki gogoan.

"Nire lana pasioz egin nezan, familia-funtzioetatik aldentu xamar ibili naiz. Horrengatik nahi dut erreko- nozimendu hau urteetan zehar nire ausentzia sofitu dutenent- zat izatea. Nire ama Mariärent- zat, hark jasan baitzituen lehen urte haietan zita eta familia-bazakrietara berandu joateak. Eta nola ez, nire nes- kentzat ere bai. Nire bizitzaren parte dira emazte eta maitea dudan Cris, eta Enara eta Joana alabak. Haiek dira askotan ere lanarengatik aita eta senar gabe geratu direnak. Hainzent- zat da omenaldi hau", esan zuen.

Ahots erdi-urratuz botu zituzten azken hitzak Txema Vallésék eta auditorioko lehen lerroan Cristina emaztea negar-malkotan ikusi zitekeen emozioak gainekza eginda, alboan bi alabak zituela.

Amaitzeko, etorkizunean herria eraikitzen jarraitzeko nahia azaldu zuen eta egun berezi honetan berarekin izan zirenei eskerrak eman zitkien familiakoekin Dana Onara afaltzera joan aurretik.

Hainbeste eman ostean, jasotzeko ordua ere iritsi zaito Txemari. Jaso dezala herria- rengandik 30 urte hauetan egindako lanaren aitortza.